

**HAURTZARO IKASTOLAKO
HARRERA PLANA
IKASLE eta FAMILIA
BERRIAK**



IKASLE BERRIEN ETA IKASLE ETORKINEN HARRERA PLANA

SARRERA

Azken urteotan migrazioen fenomenoaren ondorioz, etorkinen kopurua Euskal Herrian handitu egin da eta ondorengo urteetan norabide berdineko joera sendotu egingo dela aurreikusten da.

Dagoeneko, Oiartzunen etorritako etorkinen seme-alabak gure artean ditugu, hezkuntza maila desberdinetan txertatuak, oraindik beste inguru batzuekin alderatuz gurean fenomeno hau murriztagoa izan.

Ikastolan, 2002-2003 ikasturtean gertatu zen lehenengo ikasle etorkinen matrikulazioa: Quechua jatorrikoa, etorkin eta aldi berean, etnia gutxitu bateko partaide dena. Geroztik, urtetik urtera etorkinen kopurua gehitzen joan da eta azken urte hauetan etorkin berantiarren fenomeno ere ezagutzen hasiak gera; hau da ikasturtea hasi eta ondoren datozenak eta bertako ikasle bezala zenbat denbora egingo duten jakiterik ez duten horiek. Orain arte gurean ikasle quechuak, saharauiak, marrokiarrak, katalanak eta australiarrak izan ditugu. Azken hau salbu, kasu denetan gaztelera ezagupen txiki bat zutenak, haserako harremanak bideratzeko lain.

Beraz, harrerarako proposamen hau orain arte ikasitakoa jaso nahi du, aurrez jakinik etorkin bakoitzak bere ezaugarri propioak izango dituela eta erronka berriak suposatuko dizkigula.

Gerora, hainbat eta hainbat aspektu ditugu lantzeko:

- 1.- Kultu-artekoa curriculumean nola txertatua dagon edo egon beharko lukeen aztertzea eta jasotzea
- 2.- Curriculum desberdinak lantzeko materialgintza osatzea
- 3.- Aurrebaluazioa egiteko eta ebaluazio tresna egokiak prestatzea
- 4.- Gela arruntean erantzun jarraia eta eraginkorra eskaintzeko estrategien lanketa
- 5.- Beste

Guzti honek, klustroaren inplikazioa eskatzen du eta komunitate osoaren partaidetza.

1.- DEFINIZIOA:

Etorkinen harreraz hitz egiteko garaian, zein den etorkina zehaztu behar da lehenik.

Etorkina parametro hauen arabera definituko dugu:

1. Euskara ez dakien Espainiar estatutik datorren ikaslea.
2. Europa edo beste kontinente batetik, gaztelera jakinik edo ez, datorren ikaslea.
3. Hemendik at geratuko lirateke orain arte adopzioaren bitartez etxekotu diren ikasleak, baldin eta familia era berean kanpotarra ez bada, bederen.



4. Inguru sozio-ekonomikoa ere, kontutan hartu beharko litzateke etorkina den soilik edo kanpotarra den erabakitzeko. Nolanahi ere, trataera berdina izan daiteke.

2.- HARRERAREN HELBURUA

Harrerak elkar ezagutzea du helburu. Ikastolak ikasle berri hori eta bere familiaren (ezin baitugu haur bat familiatik at ulertu) lehen ezagutza egitea, ahal den neurrian, integrazioa lor dezan ikastola ezagutaraztea.

Ezagutza horrek, prozesu bat suposatuko duen heinean, hasieran eman beharreko pausoak eta lan banaketa zehaztuko da plan honetan.

Bi momentu bereizi behar dira:

- 1.- Ikasle etorkina irailan, guztiekin batera ikastolan hasten bada.
- 2.-Ikasturtean zehar ailegaten bada.

3.- HARRERAREN ANTOLAMENDUA eta FAMILIAREKIN HARREMANA

3.1.- Zuzendaria

Guraso edo legezko tutorearekin lehen harreman egingo du. Ikastolaren funtzioa, funtzionamendua, antolaketa eta zerbitzuei buruz informazioa emango die.

Hasierako elkarrizketa: Lehenengo une honetan baloratuko du zuzendariak elkar ulertzerik badagoen (ikastolako partaideek ezagutzen duten hizkuntzak erabiliz), ezinezkoa balitz, itzultzaile bat eskatuko da (**943022852**).

Jaso beharreko datuak:

- Matrikulaziorako eskatzen direnak: ikastolako matrikula inprimakia betetzeko emango die edo betetzen lagunduko die.
- Eskola ibilbidearen xehetasunak: eskolatua egon den, zein mailetan, non...
- Ikaslearen espediente akademikoa, informea... eskuratzeko aukerak
- Euskara, gaztelera edo beste hizkuntzen ezagutza maila
- Familiaren egoera: etorreraren arrazoia, familiaren egoera, lan egoera....

Eskaini beharreko informazioa:

- Ikastolaren ezaugarriak eta antolaketa
- Funtzionamendu arauak: funtzionamenduko txostena
- Ordutegia eta egutegia
- ikasleak behar duen materialari buruz informazioa
- Espazioa eta kontakturako pertsonak

Familiari beste hitzordu bat emango dio orientatzailearekin edo ikasketa buruarekin bilera egiteko.



Zuzendariak **ikasketa burua eta orientatzailea** jakitun jarriko ditu ikasle berriari buruz.

3.2.- Ikasketa burua eta aholularia-orientatzailea:

Ikaslea zein mailetan eta taldetan kokatu erabakiko dute.

Kokapenerako kontutan hartu beharreko datuak eta irizpideak:

- **Ikaslearen eskola espedientea** kontuan hartuko da zein mailetan kokatu erabakitzeke. Estatuan eskolatua egon bada orain arte, espedientearen baitan dagokion mailan eskolatuko da.
- **Estatuan eskolatua egon ez den kasuan, Lehendik eskolatzea egon den ala ez eta** zein modutan **eraman duen eskolatzea aztertuko da** (nongo eskolan, nolako asistentzia klaseetara, zein eratako eskolaratzea...) eta honen arabera ere erabakiko da maila batean ala bestean, talde batean ala bestean...
- **ama-hizkuntza.** Gaztelania ez den beste hizkuntza batetik baldin badator eta beste motatako eragozpen larrien berri ez baldin badugu ,bederen, legeak agintzen duen bezala **adinez legokiokeen taldean kokatuko dugu.**
- **Maila akademikoa:** dagokion ikasmilari egokitutako aurrebaluazioa egingo zaio.
 - Gaztelania baldin badaki edota haserako ebaluazioa egiteko moduan egon, bere curriculum-a egokitzeko datu bilketa egingo da.
 - Berari dagokion maila erabaki ondoren ikasle kopurua, ikastolako taldeen egoera, aurrez antzeman genezakeen eboluzioak kontutan hartuko dira, beti ere ahal den neurrian bere adinean kokatuz.

Erabakia hartu aurretik, familiarekin edo legezko tutorearekin bilera egingo dute(bietako batek) gurasoak eta ikaslea ezagutzeko.

Datu horiekin aholkularia-orientatzailea eta ikasketa burua mailako tutoreekin bildu, aurrez hartutako erabakiaren berri emateko eta bere iritzia eskatzeko. Ondoren, kokapenaren azken erabakia hartuko da.

Erabakia hartu ondoren familiari komunikatuko zaio.

Ikasle etorkinarekin lanean arituko diren profesionalekin, beren lanerako beharrezkoa duten ikaslearek eta familiari buruz informazioa emango die Aholkularia-orientatzeilak edo ikasketa buruak:

- Tutoreari
- zikloko irakasleei
- Orientazio taldeari
- jantokia, garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak,... erabiltzailea izango bada.

3.4.- Tutorea. erreferentziatzeko pertsona izango da. Ikasle taldeari ikasle berria aurkeztu. ikasle berriari harrera egin. Harrera egiteko jolasak prestatu. Lehenengo astetarako ikasle tutorea izendatu eta honen eginbeharrak zehaztu.



- Plangintza egin ondoren, beste bilera bat egingo da gurasoekin, (oraindik tutorea aurkeztu ez bada hor egingo da) eta plangintzaren berri eman.
- Ondorengo guraso bilerak tutoreak egitea proposatzen da baldin eta aparteko arazorik ikusten ez bada.
- Ahal den neurrian Guraso bilera orokorretara konbidatu eta animatu.
- Ikastolak ohizkoak dituen festa eta ospakizunetara konbidatu eta animatu.

6.- TALDEA PRESTATZEN

Ze taldetan txertatuko dugun ikaslea erabaki ondoren, gelakideak prestatuko ditu tutoreak.

6.1.- Gela prestatzen:

- Ikasle etorkina sartu aurretik, gelakideak informatuko dira. Gelan mapa bat jarriko da non datorren lurraldea agertuko den.
- Etorkin batentzat hizkuntza berria, ohitura berriak, inguru berri batera ohitzea zer suposatzen den agertuko da. Beraiei egoera horretan baleude zer nolako laguntza jaso nahiko luketen galdetu.
- Ikasleen espektatibak, aurre-iritziak entzungo ditugu.
- Ongi etorria prestatuko da
- Tutoretzarako saioak prestatuko dira:
 - 1.- Behar duen materiala emango zaio: liburuak, material kolektiboa.....
 - 2.- Pertxerotan, gelan bere tokia izena jarriko da taldean sarrera emanez.
 - 3.- Izenak ikasi, zaletasunen berri emateko ariketak egingo dira. Mahai bakoitzean partaideen izenak jarriko dira.....

6.2.- Ikasle tutore edo bitartekarien egin beharrak:

- Ikasle bitartekaria gelakideen artean aukeratuko da. Boluntarioa izango da, eta bere gaitasunetarikoa bat gelakoekin zubi egiteko ahalmena edukitzea izango da. Nola nahi ere irakasle tutoreak gelako dinamika, ikastolaz kanpo elkarrekin harremanetan jartzeko aukerak, euskararen erabilpena, ikasle bitartekariaren beharrak... kontutan hartuko ditu. Aldatzen joan daitezke.
- Bere funtzioa bere eskutik ikastolako eremu desberdinak ezagutaraztea, jolas garaietan taldean sartzen laguntzea, gelen aldaketetan berarekin eramatea... eskola bizitzan sartzen laguntzea izango dira.



- Gutxieneko funtzionamenduak ikasi bitartean, hau bere itzala izango da eta idatzirik ez dauden baina implizitoak dauden arauen berri emango dio.

7.- HIZKUNTZAREN TRATAERA

- Etorkinaren ama hizkuntza famili giroan eustea baloratuko da.
- Ikasleak menperatzen duen edo moldatzen den hizkuntzetako bat gurean hitz eginez gero, hasiera batean hori erabiltzea berarekin zuzeneko harremanetan edo beharra sumatzean egokia izango da. Horren bidez komunikazioa eta atxikimendu afektiboa irakasleak eta ikastolarekin bermatu behar da aurrena.
- Harreman afektiboa lortu ondoren ahalik eta azkarren euskara izango da harremanerako hizkuntza. Beraz, emeki-emeki, euskarak gailendu behar du.
- Gaztelaren ezagutza ez dagoenean zuzenean euskaraz egingo da, baliabide grafiko, keinuak... areagotuz.

7.1.- Euskararen trataera:

- Baliabide eta adinaren baitan Euskarazko eskolak ordu kopuru desberdinekin osatuko ditugu, beti ere kontutan hartuz MURGILTZE PROZESUA agertu dela eraginkorra bezala. Beraz hizkuntza ikasteko hitzunekin egon behar da eta ikasle batentzat hitzun naturala bere gelakidea da.
- Eskolatua bada ahozko lanketarekin batera idatzizkoa ere landuko dugu. Hizkuntzaren funtzionaltasuna, egunero beharko dituen hiztegi eta esapideak landuko ditugu.
- Euskararen erabilera eremu anitzetan bultzatu behar denez, aise denbora planifikatzea, Euskal Telebista goraiatzea...ea baliagarriak izan daitezke.
- Euskararekiko salbuespena eska daiteke ikuskaritzan. Salbuespen egoera hau bi urtez bakarrik eska dezakegu. DBH ko kasuan luzapena eska genezake (ikasturte bakoitzeko ebazpenetan begiratu behar da).

